

Guk bi kanal mota erabiliko ditugu. Lehenengo banaketa kanala aipatuko dugu. Kanal honek bost fase ditu. Lehenik pertzepzioa, honen helburua gure existentziaz jabetzea da. Jarraian ebaluazioa, fase honetan gure balorezko proposamena epaituko dute. Ondoren erosketa fasea dator, gure produktua erosteko aukera zabaldu behar dugu. Gero entrega, bertan nola entregatu erosi dutena eta azken fasea salmenta ondorengoa da eta honen helburua gure produktua erosi ondoren beste mota bateko zerbitzuak eskaintzea da, produktu gehiago sortzea.

Bigarren kanala bezeroekin komunikatzeko kanalak dira. Bertan hiru kanal erabiliko ditugu. Kanal zuzen gisa webgunea izango dugu, zeharkako kanal gisa ikastetxea eta elkartutako kanalak ere erabiliko ditugu.